

Basoberritze eskaerek % 18 egin dute gora 2020an

Kriptomeria izango da berriro gehien landatuko den espeziea, baina gorakada handiena itsas pinuak (% 69) eta sekuoiak (% 41) izan dute

Gipuzkoako basojabeek egin dituzte jadanik basoberritzerako dirulaguntzen eskaerak eta horien arabera, 2020an % 18 egingo dute gora birlanaketek. Foru Aldundiaren arabera, 1.383 hektarea landatuko dituzte kanpaina honetan baso dirulaguntzen dekretuaren baitan. Aurten ere kriptomeria izango da gehien landatuko den espeziea, iaz baino % 32 gehiago, baina gorakadarik handienak itsas pinuak (% 69) eta sekuoiak (% 41) egingo dituzte. Intsinis pinua, aldiz, atzera egiten darrai. Gaitzak jota, berau kentzen jarraitzen dute basojabeek.

1.140 hektarea konifera eta hostozabaleko 242 landatuko ditugu Gipuzkoan. Azken hauen artean, bosgarren urtez jarraian, pagoa da nagusi. 2015etik hona, 428 hektarea pago landatu dituzte Gipuzkoako basojabeek euren lursailetan. Aurten, 71 izan dira, aurreko urteetan baino gehiago. Koniferen artean, aldiz, azken hamar urteetan, 2010ean kriptomeria lurraldean sartzan hasi zenetik, espezie honetako 1.580 hektarea landatu dira.

Hona hemen basoberritzeko gehien eskatu diren espezieak:

<u>Kriptomeria</u>	593 ha
<u>Sekuoia</u>	221 ha
<u>Itsas pinua</u>	200 ha
<u>Pagoa</u>	71 ha
<u>Douglas izeia</u>	67 ha
<u>Hostozabal mistoak</u>	53 ha
<u>Haritza</u>	42 ha
<u>Arkazia</u>	29 ha
<u>Izei gorria</u>	25 ha

[Begira ezazu 2020ko taula osoa](#)

[Aurreko urteetako bilakaera \(2007-2019\)](#)

Ordenagailuan bazaude, CTRL+CLICK tauletara joateko